

◦ Malbe ◦

Larre askeen alde borrokatu zuen artzaina

Fresnesen espetxeratuta dagoen Marixol Iparragirre eskoriatzarrak eta Arrasateko preso ohi Joseba Garitaonaindiak *Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza* liburua idatzi eta euren kabuz argitaratu dute. Leintz ibarrean 1920ko hamarkadan bizi izandako artzain polemiko eta aurrerakoia bizitza jaso dute.

IKER BARANDIARAN

ASKOTAN ESAN OHI DA garena eta izango garena jakiteko ezinbestekoa dela iragana ezagutu eta horretaz ikastea. Ba, ezer gutxi dakigu Euskal Herrira erabateko industrializazioa iritsi aurretik gurean genuen bizimodu eta usadion inguruan. Gure aitona-amonak nola bizi ziren ia ahaztuta daukagu, dagoeneko. Gainera, historiako bestelako tesi eta ikerketak egiten ditugun arren, hurbil-hurbilekoa ez dago hain jaso, eta galtzera ere iritsi daiteke.

Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza lanaren bi autoreek, Marixol Iparragirrek eta Joseba Garitaonaindiak, 1888an Bedoña auzoan —bere garaian Aretxabaleta, eta gaur egun Arrasate— jaiotako *Malberen* nondik norakoak jaso dituzte; eta bide batez, Leintz ibarrean sasoi hartan zeramatzen bizimodua ekarri dute gurera, XXI. mendera.

Magalbe baserrian jaio eta bizi izandako gizon hau oso ezaguna egin zen XX. mendearen erdialdean. Horretan eragina izan zuen bere izateko modu independente, borrokalari eta jarrera irmoak. Gauzak argi zituenean, ez zegoen hura geldituko zuenik. Adibidez, emaztegai iza-

teko gertu zeuden hainbat emakume izan zituen arren, mutil-zahar gelditu zen, garai hartan ezkondu gabe bizi nahi zuelako.

Alejandro Iturbe ezagutu zutenek gogoan daukaten beste gauza bat da *Malbek* hil artean ahotan izan zuen aldarrikapena: *¡Aguas y pastos libres!* (Urak eta larreak askel). Bedoñarra artzaina zen, eta ika-mika, liskar eta epaiketa ugari izan zituen, iraganean herri-lurrak izan ziren larre eta basoetan bazkatzera eramaten zuelako bere artaldean.

Herri-lurren gaineko eskubideak

Horren harira, liburuaren egileek Euskal Herriko hainbat artxibategi arakatu dituzte *¡Aguas y pastos libres!* delako aldarrikapenaren nondik norakoak eta iturria ezagutu ahal izateko. Aurkitutakoaren arabera, historiak arazoia eman beharko zion *Malberi*. Hala egiaztatzen dute, adibidez, Oñatiko Protokolo Artxiboan aurkitutako hainbat dokumentu. Hor jasotakoaren arabera, iraganean, gerra-denboratan orduko gobernuak behartuta eta herriak txirotuta, hainbat udalek herri-lurrak saldu behar



Marixol Iparragirre eta Joseba Garitaonaindia. Liburuaren egileak
“Esanguratsua da preso dauden herritarrek historiari halako ekarpena egin izana”



Liburuaren egileek denbora luzea eman dute lana egin ahal izateko, Iparragirre Fresnesen espetxerata dagoelako. Hala ere, emaitzarekin oso pozik daude biak.

Nondik dator liburuaren egiteko ideia?

2006an Marixol eta biok elkarrizketak bidaltzen

hasi ginen eta *Malberen* gainean idazteko aukera aztertzen hasi ginen. Leintz ibarrean arrasto handia utzi zuen gizona zen eta berari buruz gehiago jakitea interesgarria izango zela pentsatu genuen.

Marixol Iparragirre espetxean izanda, lan zaila izan duzue...

Bai, egia da. Marixolen komunikazioa oso mugatua da. Elkarrizketak eta erantzuna jaso artean denbora luzea eman dugu. Horrez gain, Marixol eta ni ez gara idazleak; Mikel Albisuri eskerrik eman beharrean gaude, asko lagundu

digu-eta. Horrekin lotuta, esanguratsua da preso dauden herritarrek historiari halako ekarpena egin izana.

Malberen zein irudi egin duzue?

Pertsona bitxi eta xelebrea zen, baina ideia oso argiak zituen. Industriari bizkarra eman zion. Bere figura duintzeko ahalegina egin dugu. *Malberen* aldarrikapenak eta lorpenak ezagutzera emateaz gain, kontatu ez diguten historiaren zati bat jaso dugu.

Zein ekarpen egin duzue liburuak?



Askok ikasi dugu. Oso garrantzitsua izan da 1853an Aretxabaletako herri-lurrak zer baldintzatan saldu zituzten deskubritzea. Bestetik, uste dugu liburuaren baliagarria dela ondorengo belaunaldiak jakiteko gaur egun daukagun bizitzeko eredu zoroak ez daukala ez hantzarik ez bururik.

izan zituztenean, lurren erabilerrarako baldintza zehatz batzuk jarri zituzten, gaur egun betetzen ez direnak. Hala nola, herri-lurrak izandakoak ezin direla hesiz itxi eta ur eta larreak erabiltzeko aukera izan behar dela.

Egileek jakin ezin izan dutena da *Malbek* nolatan zekien hori, berez baldintza horiek Gerra Karlisten sasoian hitzartu zirenetan. Are gehiago, Iturbek gogor borrokatu zuen eskubide horien alde. Hala, beste lur-jabe batzuekin ikaragarriko borroka eduki zituen, basozainek gauda hil zioten, epaiketa asko izan zituen, beste lur-jabe bati baserri alboan dinamitzat lehergailua jarri zion, eta hainbat hilabetez Martutenen espetxeratu zuten, besteak beste.

Lan hau egiteko artxibategiaren egindako aurkikuntzek bultzatu asko nahastuko dituztela uste dute liburuaren egileek eta Leintz ibarreko zenbait baserriarrek eta artzainek. Izan ere, herri-lurren gaineko eskubide eta eskuduntzak argitaratu ateratzeak hainbat aldaketa ekar ditzake.



Herri-lurren gaineko eskubideak argitaratu ateratzeak hainbat aldaketa ekar ditzakeela uste dute liburuaren egileek.

Polemikoa eta burujabea

Liburuak 100 orrialdetik gora ditu eta euskaraz idatzi dute; are gehiago, egileek ahalegina egin dute Leintz ibarreko euskalkian idazteko. “Testigantza gehienak hala jaso ditugu, eta pentsatu dugu polita dela liburuak ere horrela jasotzea”, azaldu du Garitaonaindiak. *Malberen* soslaiak eta abenturak batzeko, hainbat eta hainbat artzain eta baserriarrek egon dira.

Egileek Alejandro Iturberen dozenaka pasarte, burugogorkeria, xelebrekeria, borroka eta lorpen bildu dituzten heinean –Leintz ibarrean askok gogoratzen dute suge bat jan zueneko eta halako beste hainbat, nahiz eta kasu gehienetan ez dakiten egia ala kondaira den–; bide batez, gure baserrietan nola lan egiten zuten, zer jaten zuten edo zer ohitura zituzten jaso dute. Eta horrek jada altxor bihurtzen du lan hau, gainontzeko belaunaldietarako,

interesa dutenentzako behintzat, ezinbestekoa delako. ■